## DONOSTIAKO UDALA

### Idazkaritza Nagusia

*Gizabideari, bide publikoaren erabilerari eta garbitasunari eta hiriko paisaia babesteari buruzko udal ordenantzaren 44. Artikulu aldaketaren behin betiko onespena.*

Donostiako Udalak, 2014ko urtarrilaren 30ean egindako osoko bilkuran, ondorengo akordioa hartu du:

«Udalbatzak, 2013ko urriaren 31ko bilkuran, gizabideari, bide publikoaren erabilerari eta garbitasunari eta hiriko paisaia babesteari buruzko udal ordenantza aldatzeari hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Hasierako onespen horren iragarkia iragarki oholean eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2013ko azaroaren 13an, eta, hala, jendaurrean jartzeko eta entzuteko aldia hasi zen, 30 lanegunerako.

Jendaurreko epea bukatuta, ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN aldaketen testua publikatuko da.

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazten zaio, Donostiako Udalbatzaren Organo Araudiko 113. artikuluan xedatutakoa jarraituz, aipatutako udal ordenantza aldatzea erabaki zuen akordioa behin betiko bihurtu dela.

*44. artikulua. Eraikin bereziak. (Testu hau duen 2. puntu bat gehitzea):*

«2. Salbuespen gisa, aurreko idatz zatian aipatutako kasuetan sartuta ez dauden elementuak jarri ahalko dira eraikin horietan, baldin, aldez aurretik, jartzeko proposamena Udaleko Bozeramaileen Batzordeari jakinarazi bazaio eta Bozeramaileen Batzordeak gehiengoz onartu badu.

Edozein elementu jartzeko proposamena Udal Gobernuak edo beste edozein udal taldek egingo du, eta proposamenean adieraziko dira elementuaren ezaugarriak, neurriak eta zein alditan jarri asmo den».

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen honen hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, bestetik, behinbetiko onartutako akordioa eta aldaketa argitara ematera goaz.

Donostia, 2014ko otsailaren 3a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Udalbatzaren Idazkari Nagusia. (1067)

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIAN

### Secretaría General

*Aprobación definitiva de la modificación del artículo 44 de la Ordenanza municipal sobre el civismo, el uso y la limpieza en la vía pública y la protección del paisaje urbano.*

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 30 de enero de 2014, acordó lo siguiente:

«El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 31 de octubre de 2013, aprobó inicialmente la modificación de la Ordenanza municipal sobre el civismo, el uso y la limpieza en la vía pública y la protección del paisaje urbano.

El 13 de noviembre de 2013 se insertó en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de edictos anuncio de la citada aprobación inicial, abriéndose el plazo de exposición pública por plazo de treinta días hábiles.

Dentro de dicho plazo no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro de las modificaciones en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 113 del Reglamento Orgánico de Pleno, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la modificación de dicha Ordenanza.

*Artículo 44. Edificios Singulares. (Adición de un Punto 2.º con el siguiente texto):*

«2. De manera excepcional, se podrán colocar elementos que no se encuentren en los supuestos del apartado anterior en esos edificios siempre que, previamente, haya sido informada la Junta de Portavoces Municipal de su propuesta de colocación y se apruebe, a su vez, por la mayoría de dicha Junta de Portavoces.

La propuesta de colocación de cualquier elemento se realizará por el Gobierno Municipal o cualquier otro Grupo Municipal, y en ella se explicitarán las características, dimensiones y tiempo durante el cual se prevé que vaya a estar colocado».

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses.

Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 70.2 de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a la publicación del acuerdo y de la modificación aprobada.

San Sebastián, a 3 de febrero de 2014.—El Secretario General del Pleno, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga. (1067)